

Landakoa baserria

Landakoa baserrian bizitzera joan baino urte bat lehenago edo hasiko nintzen tripeko zorrien estutasuna sentitzen. Lanean gustora nengoen, lantaldea atsegina zen eta ordutegia ona zen. Bakarrik bizi nintzen, alde zaharreko etxe txiki batean. Ia konturatu gabe tripak estutzen hasi zitzaizkidan eta egunetik egunera egonezinaren zomorroak ugaritzen hasi zitzaizkidan. Lanean ezerk ez ninduen asetzen eta handik kanpora ere, inorekin egoteko gogorik ez nuen.

Ahizta nitaz preokupatuta zegoen eta hurbiltzen zitzaidanean aholkuz betetzen zidan ordutegia: *"Zerbaitetara apuntatu"* esaten zidan, *"joan zaitetz zinemara"* edo *"norbait ezagutu behar duzu"*... Ta nik ...ezin nuen. Indarrrik ez. Gogorik ez. Beste zeozer behar nuen, baina zer zen ezin aurkiturik nengoen.

Bapatean, lankideekin kafe bat hartzen ari nintzela, lankide batek bere amamaren herrian baserri bat salgai zegoela aipatu zuen. Antza baserri txukuna, ez oso handia, baratza txikiarekin. Momentuan ez nion kasu handirik egin, baina gauean, orduantxe irakurtzen ari nintzen ipuin-liburu batean, baserri ingurunean girotutako ipuina egokitu zitzaidan. Eta ipuina irakurtzen ari nintzela, testuari arretarik jartzen ez niola konturatu nintzen, lankideak aipatutako baserria gogoratu eta zelakoa izango zen pentsatzen ari nintzen...

"Agian lanean eszedentzia hartu dezaket eta herritxo horretara mugi naiteke..."

Hiriko handitasunetik, herri txiki batera. Eguneroko konpromisoetatik denboraren askatasunera. Basoan paseoak eman. Nire burua etxe atarian kafe beroa hartzen irudika nezakeen. *"Ta zertaz biziko naiz?"* Baserriko lanetaz ez nekien apenas ezer ez, eta baratzeko lanak ezezagunak nituen... Hurrengo egunean lankideari baserriaren ingurukoak galdetu behar nizkiola erabaki nuen, *"batek daki, agian..."*.

Baserria mendialdeko herritxo batean zegoen. Herritik 300 bat metrotara, ez zegoen urrun, baina erdigunetik aldendua, beste bi baserri ikusten ziren bertatik. Beraz, nahi nuen bakardadea, baina ez isolatua. Ideia gero ta erakargarriagoa egiten ari zitzaidan. Google-n argazkiak bilatu, non kokatzen zen ikusi, baserriaren egoeraz galdetu. Prezioa galdetzerakoan, umeek oparia irekitzerakoan sentitzen duten urduritasuna nabaritu nuen. *"Eta garestiegia bazen?"* Lankideak gauean deituko zidan prezioa esateko. Diru apur bat aurreztuta neukan. Baserria txukun zegoen arren konponketa batzuk behar zituen. Nirea izan behar zuen. Gauean deitu zidanean begiak itxita neuzkan, konzentratuta, beldurtuta, emozionatuta. Pentsa baino garestiagoa zen arren, erabakia hartuta neukan. Banij Joan.

Aste bi behar izan nituen salerosketa burutzeko, laneko kontuak amaitzeko, eta nire gauzak biltzeko. Ahiztarekin egin nuen etxe-aldaketa eta hasierako garbiketa. Hainbatetan esan zidan nirekin geldituko zela lehen egun horietan, baina ez zela

beharrezkoa esaten nion, larregi pentsatu barik. Lehenengo egun horretan biok elkarrekin afaldu genuen herriko tabernatxo batean ta amaitzerakoan oinez abiatu nintzen, bakarrik, nire etxe berrira, ekainak zuen iluntze epel bateko babesean.

Etxeak solairu bi zeuzkan, behean korta eta goiko solairuan hiru gela eta sukaldea, beheko suarekin eta mahai handi batekin. Lehen gau hartan, gelatako batean lo egin baino, akanpatzeko esterilla eta lozakua jarri nituen sukaldean, beste gelak oraindik beste norbaitenak iruditzen zitzaizkidalako. Oso nekatuta nengoen, eta lozakuan etzanda, begiak itxita berehala lokartuko nintzela pentsatu nuen. Erdi kontziente, erdi lo, hainbatetan lokartu eta esnatu nintzen, berriro ere lo gelditzeko. Lokartze-esnatze tarte horietan arropa erazten joan nintzen lozakuaren barruan, gorputza erlaxatzen denean ematen duen berotasunean.

Erdi lo nengoela, oraindik bero nintzela eta, lozakuaren kremaiera zeozer ireki nuen. Alboz etzanda nengoen eta kremaiera irekitzerakoan, eskuaren laztan arin eta nahigabe batek zirrara berezia eragin zidan. Eskuarekin izter barruko azala laztantzen hasi nintzen, aluan kilikak zelan agertu eta desagertzen ziren gozatuz. Astiro eskua sabelerantza mugitu nuen, ia azala ukitu gabe, tximeleta-kilimatxuen antzera, oilo ipurdiaren sentiberatasuna oparituz. Esku bidaiaria nire sabelazpiko iletxuekin jolasten, kiribiltzen gelditu zen. Arnasaren sakontzea. Ahoa bustitzea. Irudimena ihesean. Gorputzaren atal bakoitza bere sentsazioekin jolasten hasi zen.

Erdi lo egoteak ematen duen irrealtasunarekin beste pertsona baten arnas-beroa nire lepoan sentitzea iruditu zitzaidan. Beste esku bat nire aldakan. Bular sendo bat nire sorbaldaren kontra. Zakil gogor bat nire ipurdiaren haranean kokatuta. Begiak itxita, burua atzera bota nuen, bere arnasaren bila. Nire sorbalda kurbatuz, bere eskuak titi bat hartu zidan, estutuz eta igurtziz. Sukalde ezezagun bateko lurrian etzanda, gozamenez bustitzen hasi nintzen. Esku ezezagun hura, nire titiaren aingura utziz, bere bidea egiten hasi zen, sabelera, zilborrera, hankartera. Eskua bere zabaltasunean nire hankartean kokatu zen, atzetik aurrera, bere gorputzaren kontrara estutzen ninduela. Hankartea apurka zabalduz joan zen eta bere atzamarrak nire potxolina laztanduz, barneratuz, trebetasunez ezpainen artean mugituz, igurtziz eta kilikatuz. Astiro hasieran, ia ukitu gabe, zirkuluka, nire klitoria eutsiz eta askatuz. Nire lepoan koska arinen dardarak nabaritzen nituen, nire ipurdia mutilaren aldaka eta zakilaren kontrara igurtzen nituela. Mutil haren besarkadan galdu nintzen, bere gorputzaren sendotasunaren kontra arnas gabe gelditu nintzen, gorputzaren dardarei eutsiz, konturatu gabe lo gelditu nintzen arte.

Hurrengo egunean goiz altzatu nintzen. Egun eguzkitsua baina freskoa esnatu zen. Lokartu aurreko ametsa gogoratzereakin batera ezinegon arin bat nabaritu nuen. Gosaldu ostean garbitzeari ekin nion, ezinegona uxatzeko gogoz. Bazkalosteko kafea

hartzen ari nintzela etxe hartan bizi zen familia zelakoa izango zen pentsatzen hasi nintzen. Pentsamendu horietan murgilduta nengoela, lehiotik sartzen zen eguzki epelaren besoetan, logurea sartu zitzaidan eta begiak itxi nituen. Amets arraroa izan nuen, mutil bat eta andra bat eztabaida bizian. Mutila hitz isilez, keinu irekiez, apal, azalpenak emateko gogoz, andrarekin kontaktua bilatzenari zen, eskua luzatuz. Eta andra haserre, gogor, sorbalda emanez, ezer hitz egiterik ez balego bezala. Esaten zutena ez nuen ulertzen, baina tentsio handia zegoen. Bapatean baserriko sukaldean nengoen, bakarrik, eta orduan ohartu nintzen negarrez nengoela.

Arratsaldea etxetik eman nuen, sarrerako armairu handia garbitu eta nire gauzak sartu nituen, zerrenda osatu erosi beharreko gauzekin eta komuneko iturri eta ontziak probatu nituen. Iluntzean logelak ikusten joan nintzen: handi bat eta bi txiki. Logela handiko argia ez zebilen eta txikiekin hastea erabaki nuen. Lehenak altzari anakronikoak zituen, 80. hamarkadakoak edo, eta hainbat panpin. Nire haurtzarora eramaten ninduela iruditu zitzaidan eta atea itxi nuen berriro, han niretzat ezer ez zegoela pentsatuz.

Ondoren sukalde ondoko logelara sartu nintzen. Logela txikia zen, ohe handi batekin. Armairu estua, ispilurik gabekoa, eta aulkia lehioaren ondoan. Usain garbia zegoen, ez zuen ematen aspaldian itxitako gela zenik. Izarik gabe zegoen ohea eta armairuan ondo tolestaturako izara zuri garbiak topatzerakoan irri txikia egin nuen. Ohea egiten ari nintzela zertxobait animatuz joan nintzen eta bertan lo egingo nuela erabaki nuen. Sukaldean utziak nituen lotarako gauzak logelara eroan nituen, mesanotxean kokatu eta argi txikia piztu nuen, logelako argi-itzalak majikoak bihurtuz.

Afaldu ostean logelara joateko momentua atzeratzen ibili nintzen, urduri nengoen eta ez nekien oso ondo zergatik. Ezinegonari aurre egin eta infusio lasaigarriarekin oherantza joan nintzen.

Ohean sartuta eta infusioa eskuartean, inguruko gauzei begiratzeari ekin nion, ate, zirrikitu eta itzal guztien zerrenda egin behar banu bezala. Nire ondoko mesanotxera iristerakoan, han zegoen nire telefonoa, lanparatxoa eta... kajoi bat. Infusioa mahaigainean utzi eta kajoia ireki nuen. Ez zegoen ezer. Baina kajoia irekita zegoela, beste ezkutuko kajoi bat aurkitu nuen, kajoia eta goiko apalaren artean. Sobre horixka zimurtu eta potoloa zegoen bertan. Eta sobrearen barruan tolestutako orri pila bat. Ohean berriro egokitu nintzen eta nire aurrean zabaldu nituen.

“Goizean zurekin gurutzatu naiz. Urrunetik irri egin didazu nahiz eta elkarren ondotik pasa garenean ez didazun ezta begiratu ere egin. Berdin zait. Elkarri begiratzen diogun beste guztiak gogoratzen ditut

eta begiak itxita ere, zure gorputzeko atal bakoitza irudika dezaket. Gauean zurekin egongo naiz eta orduan ezin izango duzu zure begirada iheskorra nigandik urrundu."

"Gaur zure ama etorri da etxera. Nirearekin jesarri da sukaldean eta amari kontatu dio egunen batean baserria zurea izango dela eta orduan berak lasai ederra hartuko duela. Andra ona bilatu behar dizula eta langilea. Bihotza gelditu zait. Ni naizela pentsatu dut eta arreta jarri diot elkarrizketari. Herriko Juaniren amarekin hitz egin duela, ea Juani prest egongo zen. Etxetik korrikan atera behar izan dut nire negarrak ikus ez ditzaten"

"Atzo esandakoa bete behar duzu. Benetan dinotsut. Ezin dut zu gabe bizi. Eguna zukan pentsatzen ematen dut. Zoriontsua naiz zure eskuekin aurpegia heltzen didazunean. Musu emateko aurreko segunduetan, zure aurpegia zelan hurbiltzen zaidan begiratzen gelditzen naiz... Zure eskuak irudikatzen ditut nire aldaketan, zuregana hurbiltzen nauzunean. Nola zure kontrara nagoenean, zure eskuek nire ipurdia heltzen dutela, tinkotasunez... Goizetan esnatzen naizenean, zure zakila gogoratzen dut. Gogorra eta goxoa aldi berean. Zure barrabilak estutzen ditudala iruditzen zait eta zurekin egoteko irrika ia jasanezina da. Orduan begiak gogor ixten ditut."

"Maite dut zure ahoa.

Zure mingaina.

Zure muxuen arintasuna.

Zure ezpainak nire lepoan, nire sorbaldatik behera, titiak laztantzen dizkidazun bitartean, kortako mahaiaren kontra naukazula.

Zure mingainaren laztan busti iheskorak nire sorbaldaren oinarrian, ipurdira bidean ailegatzerakoan, erdigunean kokatuta eta endredatua.

Zure eskuak nire ipurdia zabaltzen eta zure mingainari bide egiten.

Zure musuak nire hankartean, atzetik aurrera, nik hankak zabaltzen dizkizudanean. Zure mingainaren dantza nire gorputzaren dardaren erritmora.

Nire hanken besarkada."

"Ilunsentia iristerakoan egarri zaitut. Zuregana iritsi ahalko nintzateke ingurua usaintzearekin bakarrik. Zure usainak erotzen nau, eta orduan zure izerdi tanta bakoitza edango nuke. Besarkatuko zaitut, nirea egingo zaitut. Kortako mahaietan etzan egingo zaitut eta biluztuko zaitut. Zure gainean jesarrita nagoela ahoa belarrira eramango dut eta belarri-gingila miazkatuko dizut, Belarrira arnas egingo dizut, zelan erotzen zaren ikusteko. Zure gainean nagoela buelta emango dut eta zure hankartea laztanduko dut, leheneko eskuekin, zure enborra zurituko dut eta zurrupatuko dut. Bere azalez biluztuko dut, eta nire

ahoaren epeltasunean sartuko dut. Nire alua zure aurpegian aurrean imajina dezaket, zure burua atzatzan, zure ahoa nire alura hurbiltzen eta inguratzen. Jango zaitut. Jango nauzu. Egarrri zaitut, gose zaitut, maite zaitut"

"Lasai ez dut aurrekoetan idatzitakorik errepikatuko. Ez egiteko esan didazu eta, nahiz eta gustatzen zaizun, ez egiteko. Badaezpada zure amak paperak aurkitzen baditu, horrelakorik ez irakurtzeko. Niri berdin zait. Baina berarekin hitz egin behar duzu, eta nirekin egon nahi duzula esan behar diozu."

"Amari gaur esan diot zurekin maiteminduta nagoela, eta elkarrekin egon nahi dugula.

Eta berak amets egiteari uzteko esan dit:

- *Mutua zara neska!* -esan dit.- *Beti keinuka, animalien antzera!*

Ea ez naizen ohartu.

Ezin dudala nik nahi dudana egin.

Eta etxean geldituko naizela, berarekin.

- *Nork maiteko zaitu hitzik egiten ere ez badakizu eta?* -esan dit, zuzenean niri begira.

Hitzak bihotzean ditudala adierazi diot, ahoa eta bihotza eskuarekin ukituz, nire ahotik ateratzen ez diren hitzak, nire eskuetan jarritz. Eskuak heldu dizkiot eta nire bihotzean jarri ditut.

Ez dudala ahotsik behar esan nahi nion.

- *Ez da zuretzat -moztu dit, nigandik aldenuz.- Bere amak beste neska bat du buruan.*

- *Azken finean zu ez zara osoa* -amaitu du.

Eta nik, osoa edo ez, ... behar zaitut."

Denbora luze egon nintzen hutsari begira. Nire burua ere hutsik. Zer irakurri nuen ere, interpretatu ezinik. Zer egin jakin gabe. Neska haren saminak ukitu egiten ninduen, barrutik tripak estutu egiten ninduen... eta aldi berean mutilaren hurbiltasuna somatzen nuen. Historia hura nire azalera itsatsita igartzen nuen.

Berandu zen lokartu nintzenerako eta gau horretako ametsetan korapilatu nintzenerako bihotzeko tristura ia jasanezina zen.

Egusenti ilunean.

Bi gorpu.

Bi gazte.

Iraganari iltzatuta.

Neska eta mutila.

Elkarren ondoan.

Kortako habe nagusitik zintzilizka.

Ama bi negarrez.

Elkarren ondoan.

Kortako mahaitik, gora begira.